

LIZUNAREN SARIAK




Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Londres, 1928ko uztailaren amaiera. Alexander Fleming biologo, farmakologo eta botanikari eskoziarra oporretara joan zen, bakterio kultiboak zituzten petri plakak jasotzea ahaztuta, eta irailan, Paddingtongo laborategira itzuli zenean, plakak lizunduta zeuden, *Penicillium notatum* onddoak hartuta. Eta onddo haren inguruko estafilokokoak hilik zeuden. Pasadizo ezagun hartan, Flemingek penizilina aurkitu zuen. Baina antibiotiko aitzindaria eraginkorra izan zedin kantitate handitan ekoiztu behar zen. Penizilina ondotik atera eta purifikatzea oso zaila zen.

1938an, Oxfordeko Patologia Institutuko Ernst Boris Chain eta Norman Heatley biokimikariak eta Howard Florey medikua penizilinaren ekoizpena handitzeko ahaleginean hasi ziren. Emaizta handirik lortu gabe, jarduna eten behar izan zuten. 1941ean, Bigarren Mundu Gerrak eta baliabide faltak, Chain eta Florey AEBetara eraman zituzten, zehazki, Peoriako (Illinois) Nekazaritzarako Ikerketa Departamenduko laborategira.

Laborategi hartan lan egiten zuen Mary Hunt-ek. Ezer gutxi dakigu hari buruz; 1980an bizirik zegoela eta Chica-gon edo Arizonan bizi zela. Eta 1943an laborategiarentzat erosketa bereziak



Ezkerrean, Alexander Fleming (1881-1955), penizilina aurkitu zuen zientzialaria. Eskuinean, Mary Hunt, penizilina masan ekoiztea eta merkaturatzea ahalbidetu zuen laborategiko laguntzailea. Flemingek Nobel saria jaso zuen, besteak beste; Huntsek goituzen ezatsegin bat besterik ez.

egiteaz arduratzen zela; dendaz denda ibiltzen zen, fruta, barazki, esneki eta haragi lizunduen bila. Ekaineko egun batez, lizun horixka zeukan meloi bat erosi zuen. Laborategian, lizuna ebaki eta azter zezaten prestatu zuen, laginari etiketan 72 zenbakia ipinita. Gero, itxuraz, lizunik gabeko meloi zatiak lankideen artean banatu zituen eta gozoegia omen zegoen.

Penicillium chrysogenum onddoa zeukan Mary Huntsek aukeratutako meloi



From a Spoiled Cantaloupe in Peoria...
the host of 100,000 strains of Penicillium

hark. Flemingek aurkitutako onddoak baino 200 aldiz penizilina gehiago ekoizteko aukera ematen zuen (eta 1.000 aldiz gehiago, andua erradiazio ionizatzaileen bidez hobetu ondoren).

1945ean Medikuntzako Nobel saria eman zieten Alexander Fleming, Ernst Boris Chain eta Howard Floreyeri. Mary Huntsek, aldiz, goituzen zatar bat besterik ez zuen lortu: Moldy Mary edo Mary Lizundua esan zieten handik aurrera. ■



CHRISTOPHER JOBSON

XVII. mendeko pantonea

1692an, Herbehereetan, "A. Boogert" sinatzen zuen artistak akuarelei buruzko lan mardula osatu zuen nederlanderaz. Eskuz idatzitako eta margotutako ia 900 orritan milaka kolore bildu zituen egileak, eta horiek guztiak koloreak nahastuz eta ur gehiago edo gutxiago erantsiz nola lortu azaldu zuen. Liburua aztertu duen Erik Kwakkel

historialariaren arabera, lanak helburu didaktikoa zuen. Baina liburuaren kopiari ez zen egin eta ziurrenik margolari eta ikasle gutxik izango zuten bilduma originala eta bakarra erabiltzeko aukera. Gaur egun edonork kontsulta dezake, <http://www.e-corpus.org/notices/102464/gallery/> helbidean, berreizmen handian. ■